



## HAURRESKOLA PUBLIKOAK 0-2: DOAN ETA UNIBERTSALAK

STEE-EILAS sindikatuak salatu nahi du familiek ordaindu beharreko kuoten inguruan Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen *Haurreskolak* Patzuergoak hartutako hainbat erabaki.

Batetik, egun gizartean bizitzen ari garen egoera sozio-ekonomiko larri honetan, *Haurreskolak* Partzuergoak familiek ordaindu beharreko kuotan **%5,05-eko igoera ezarriko du**. Honela, familiek, 8 ordu arteko egonaldiagatik urtean 2.288€ ordaindu beharko ditu haur bakoitzagatik. Igoera KPlaren gainetik dago eta ez du kontuan hartzen familiek ordaintzeko izan ditzaketan zailtasunak.

Gainera, aurten lehenengo aldiz, eta beraien funtzionamendua erraztu nahi dutelako aitzakiarekin, 148€ko aurre kuota bat aurreratzea eskatu zaie familiei. **Fidantza bat ordaindu behar da** maiatzean matrikulazioarekin batera, iraileko kuotari dagokion kontzeptu modura. Zerbitzu publiko batean, zeharo tokiz kanpo dagoen neurria dela deritzogu.

Honetaz gain, arrazoi desberdinengatik baja ematen duen haurrak, egon ez den hilabetei dagokien diru kopurua aldi batean ordaindu beharko du, 6 hilabeteren buruan haurreskolara itzuli nahi baldin badu. Hau da: **erabili ez duen zerbitzuagatik ordaindu beharko du!** Neurri lotsagarri eta zigortzaile honen kontra gaude, erabat.

STEE-EILAS sindikatuak, dohakoia, unibertsala, kalitatezkoa eta hezitzailea den 0-3 zikloa aldarrikatzen jarraituko du.

STEE-EILAS

2012ko azaroaren 6a